

# Sozialismo bat, ez bi eta hiru

Euskal sozialismoak ezin du buru hartu masa organizazio batetan. Urte pare bat pasa zaigu, aurreko bolada guziaz kontatu gabe, masa organizazio bedeinkatu hori sortzekotan. Eta, baten ordez, dozena erdi inguru dadukagu: EHAS, ESB, LAIA, LAK, LAB, eta abar, eta oraindik sortzeko omen direnak, edo sortu berri berriak (EEE, EKAB), etc. Denak "masa organizazioak". Eta Eibarko Sozialistak, eta Nafar sozialistak, eta Sozialismo aldeko kristauak, eta abar, eta abar.

Hainbeste "masa organizazio" Euskal Herrian ez da absurdu bakarrik. Euskal sozialismoaren suizidio garbia da.

## Organizazio bat

Euskal sozialismoak ez du ikasi oraindik, momentu honetan sortu beharrezkoa ORGANIZAZIOA duela.

Euskal sozialismoak bere alternatiba eskaini behar du. Horregatik, MOMENTU HONETAN problema inportanteena ez da filosofiaak eta teoriak egiten aritzea. Diferentziak xehe-xehe argitzea. Mugak ondo mugatzea. Momentu honetako problema larria organizazioa da, bere tresna guzietan: prentsa, eta abar. Hau da, euskal sozialismoaren problema nagusia organizazio bakar baten falta da, berriro esateko. Benetako masa organizazio baten falta.

Behar duguna ez bait da dozena erdi bat organizazio, ezpada organizazio BAT, alternatiba bat eskaini ahal izateko.

## Organizazioak burrukan

Halare, esan daiteke, dauden organizazioak gehiago preokupatzen direla beren buruez, Euskal Herriaren etorkizunaz baino.

"Guk zer izan behar dugu eta egin behar dugu?", galdetzen dio bere buruari organizazio bakoitzak, egoera aldatzen ari omen delako horrekin. Ederki galdetuta. Baina gero, organizazio bakoitzak *egiazko sozialismo* bakarra oraindik berak bakarrik inkarnatu nahi duela, dirudi.

Umekeriak entzuten dira, organizazioen arteko atso-zahar-burruka honetan. Berak ez direla, gero, besteak bezalakoak: hori garbi uzteko enpeinu xeble bat ikusten zaie organizazioei. Izan ere, pertsonalitate-rik ez duena beti bildur da "bere pertsonalitatea galtzeko"...

## Lehenengo batasuna

Gauzak asko aldatu badira, Euskal Herrian gehien aldatu dena hori da azkeneko urtean.

Diferentzien kontuak ez zaizkio inori batere inporta. Bakoitzak bere kapila zaintzen duen sakristauen, kontuak, iruditzen zaizkio jendeari.

Lehen bai LAIAren eta ETAren arteko diferentziak, eta hola, interesgarri ziren. Orain ez. Arras sekundario bihurtu dira problema horiek. Ez dira interesatzen. Jendea preokupatzen duen diferentzia nagusia honetan, hauxe da: sukursalista ala ez-sukursalista. Besteak sekundario dira.

Eta orain esijitzen dena, sozialista ez-sukursalista guzien organizazioa da. Diferentziak ez dira ahazten erabat. Baina diferentziena guztiz problema sekundario bezala sentitzen da momentu honetan. Sozialista ez-sukursalistei eskatzen zaiena batasuna da. Lehenengo batasuna. Gero esplikatuko dizkigute diferentziak. Absurdu badirudi ere, halaxe sentitzen da gaur.

Oso logikoa izango da, esatea, lehenengo diferentziak argitu behar direla, elkartasunik nola den posible jakiteko. Bai, hori oso logikoa da, taldeen beren perspektibatik. Herriaren perspektibatik aldrebes agiri da. Eta herriak ez du esaten, nola egin batasuna. Ezpada, egin dadila batasuna. ●

JOXE AZURMENDI

Juan XXIII-ren "Pakea Lurraldetan" Enziklikaren zenbait atal-bururi "oraingo aldien zantzuak" deritza, horietan dotrina ez baizik gertariak aztertzen ditu-ta. Gaur eguneko egoerari begira beste horrenbestetxo egiten hasiko naiz:

— Gutierrez Mellado teniente jenerala lehendakari-ordeko izendatua.

— Fernando de Santiago eta Carlos Iniesta teniente jeneralak "erreserbara" pasaeraziak.

— Irailaren 28an Marcelino Oreja ministroak izenpetzen ditu ONU-n giza, politiko eta ekonomi eskubideen nazioarteko erabakiak.

Zuzenki Euskal Herriari dagozkionak berriz:

— Urriaren lehenengoan Gobernuak ikastola batzu "interes sozial" ekotzat hartzen ditu legearen babesean, honek dakartzkien ondorio guzietan.

— ETA-k beretarretakoak libre uzten ditu halako politiko alderdi sorberrietan sar daitezen, harmatako eginkizunak saihestuta.

Mussolini-k esan ohi zuen hitzak eme direla eta eginak ar. Ez dut nik pentsatzen aipaturiko gertaera horiek hitz huts direnik. Ene ustez indar-aldi batetik politika-aro batera igarotzen ari gara, poliki-poliki behar bada, astiroegi askoren iritzirako, baina zalantzarik gabe. Eta aurreko denborari politika klase batekoa deitzen bazaio, oraingoari esan beharko diogu beste politika molde baten hastapena dela, aldi politikoa-goa, demokratagoa, europeagoa nolabait adierazteko.

Gai honetaz aspaldi jarri nituen Manuel Diez-Alegria jeneral famatuaren zenbait hitz "Zeruko Argia"-n. Gutxi gora-behera zion bihottzak bere arrazoiak badituela, sarritan honetxek bultzatzen gaituela ekitera, baina badirela denborak buruaren arrazoiei batez ere kasu egitekoak, eta pasatzen genituen denborak hauxe eskatzen zigula, alegia, zuhurtzari, jakiteari, zentzuari, odol hotzari obeditu beharrekoak. Hori bera berritzen dut egun ere. Zaila dela? Ia ezinezkoa dela? Badakit ongitxo. Eta halare buru hotza behar dugu, adimen argi, zuhurtasun osoa lehen-ikuspena, ideia sakonak, irizpen nabariak, jakituria, geure herriaren etorkizunari aurpegi lasaikiro eman diezaiogun, geure seme-alabek merezi bezalako herri era utz diezaiogun.